


Astekaria

BARRREN

elgoi



Gipuzkoako III. Duathloi txapelketa

SOARTE

MULTIOPTICAS

UZURI OPTIKA

San Frantzisko 21
Tel. 74 03 59

MultiOpticasekin
akordio bati esker,
errebisioak **DEBALDE**

maiatzak 1etik
aurrera.
Eskatu ordua eta eguna.

3 LAU HANKATAN

"Lan munduko egoera erabat aldatzen ari da eta ezin da herria une txar bat pasatzen ari dela sinestu". **Joxin Arregi**

6 ERREPORTAIA: MAUSITXAKO GAZTAREN SEKRETUAREN BILA

Rosa Maria Salegi eta Jesus Ansolak hainbat gizalditik datorren gaztagile tradizioari eutsi diote.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: MINTXETARAKO, BELAR ARTIFIZIALA ALA NATURALA?

Ramon Mujika: "Belar artifizialak mantenu lanak gutxitzen ditu, kostea asko jeitsiz."

Jose Mari Arakistain: "FIFA elkarte internazionalak, debekatuta dauka nazioarteko futbol partidurik belar artifizialetan jokatzeari."

12 BERBETAN

"Jendea, odola falta dela mentalizatu behar da".

Ramon Maiztegi.

14 KIROLA:

GAIA: 300 BAT PARTAIDE IGANDEKO DUATHLOIAN ELKARRIZKETA:

Tomas Conde: "Xakeak gauzak egin aurretik pentsatzen erakusten du".

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

SALLOBENTE ELKARTEA: FILOSOFIA POSITIBOAREN JARRAITZAILE

17 KULTURA

LEIZARPEK IZARRAITZI BURUZKO LIBURUA KALERATU DU

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 24, larunbata: ORMAZABAL
- 25, igandea: ORMAZABAL
- 26, astelehena: ETXEBERRIA
- 27, asteartea: ETXEBERRIA
- 28, asteazkena: ETXEBERRIA
- 29, osteguna: ETXEBERRIA

30, ostirala: ETXEBERRIA

OKINDEGIAK:

- 25, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	75 61 00
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC).....	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



LAU HANKATAN



Joxin Arregi

Nora goaz?

Datozen bi hilabete hauetan, gure artean dauden arazo eta trapu zahar guztiak mahai gainean jarriko dira dudarik gabe. Batzuk eta besteak elkarri apustu gogorak botako dizkiote. Botoak duen segundu bateko bizitza horrek badirudi, gauzak jakiteko eta horiek gure iritzia azaltzeko gai egiten gaituela.

Baina egun hauek joango dira eta nahi eta nahi ez, guztiok, irabazle eta galtzaile, herriaren etorkizunari begira jarri beharko gara berriro.

Munduan zehar ematen ari diren aldaketak ez dira txikiak eta guztion begi bistan jarri beharrean gaude. Lan munduko egoera erabat aldatzen ari da eta ezin da herria une txar bat pasatzen ari dela sinestu. Hau, ez da une txar bat, aldaketa estruktural bat baizik.

XX. mende honetan protagonista nagusi bat izan bada, hau dudarik gabe, industriako langilea izan da.

Berak eta bere kideek mende

honi kolorea eman diote, lan baldintzen aldaketa, diru sarrerak, langilearen eskubideak eta erakundeak izan duten indarra dira mende honen gertaera eta protagonista inportanteenak.

Baina mende honen bukaerak hau dena hankaz gora bota du, eta ez bakarrik krisialdi gogor bat jasaten ari garelako, baizik eta lan munduaren antolaketa erabat aldatu delako.

P. F. Druckerren informeak adierazten duenez, urte gutxi barru industriako langilea lan munduko a%10 besterik ez da izango, eta horrek kolokan jartzen du guk orain ezagutzen eta bizi dugun gizarte mota hau.

Gure arteko zatiketak, ezin ikusiak eta gorrotoak elkarrizketa eta elkarren arteko lanari bidea eman beharko dio. Bestela, Elgoibarko enparantzak ez du goizean pasiaran ibili beharko duten hainbat pertsonentzako nahiko lekurik izango.

- Argitaratzailea**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi
- Hizkuntza Arduraduna**
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**
Maite Rementeria
- Publizitatearen diseinua**
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria
- Publizitatea**
Amaia Leiaristi
- Administrazioa**
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste
- Kolaboratzaileak**
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, German Meabebasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Sagundo Raigoso, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta, Javier Zarzuelo.
- Banaketa arduradunak**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Helbidea**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
- Inprimategia**
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**
3.000 ale
- Lege gordailua**
SS-1.038/92
- ISSN**
1133-0R1X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



APIRILAK 26tik 30era

"Microondas"arekin janaria nola prestatzen den azalduko dizuegu, **Whirlpoolen** laguntzari esker. **ZATOZTE!!**



Elgoibarko Euskara

Elgoibartar askok Tolosako edo Leitzako euskara Elgoibarkoa baino askoz hobea dela uste dute. Oker daude.

Hizkuntzetan hiru alderdi ongi bereizi behar dira. Alderdi fonikoa, lexikoa eta egitura (structure).

Goierriko edo Leitzako euskara Elgoibarkoa baino goxoago da. Hau da, belarrirako Elgoibarkoa gogortxoagoa da, zabartxo.

Alderdi fonikoak, ordea, garrantzi txikia du hizkuntzetan. Hori pertsonetan azala bezala da. Tolosako euskara xuriago, politago dela esan liteke.

Lexikoan duda egin liteke. Egia da Elgoibarren bentana, bajau eta horrelako erdal hitzak erabiltzen direla. Baina bai eta Goierrin erabiltzen ez diren hitzak ere. Goierrin korrika, debal-

de... esaten dute. Elgoibarren, ostera, antxixinka, duan (doan)...

Dena delarik, lexikoa ez da hizkuntzaren oinarria. Alemanez hitz egiterakoan adibidez, frantsez hitzak sartzen badituzu, zure alemana hobea irudituko zie bertakoei.

HIZKUNTZAREN MUINA ETA OINARRIA EGITURA DA. Eta horretan ez dago zalantzarik Elgoibarko euskara Tolosakoa, Leitzakoa eta Goierrikoa baino hobea dela.

Elgoibarko euskarak eta Bizkaikoak Goierriko euskarak baino askoz hobeto bereizten ditu:

Erreflexiboak (neure, zeure...), intensiboak (neu, zeu...), erakusleak (adiskide maiteok), konpletibak -na/la (etorri dana badaki/ etorri dala esan du), eta -la/nik (etorri dala usten dot/ Ez dot usten etorri danik).

Konjuntzioak oso ondo jartzen dituzte

elgoibartarrek azkenean: "Nik ori ekarri arren", "Nik esan nion baña", "Nik esan nion barren!". "Nahiz ori ekarri", adibidez, askoz erdaldunagoa da.

Elgoibarren oso ondo bereizten dira iñor/beste Bizkaia osoan bezala. Iñor bestek orokorki da. Beste jazargoan, oposizioan erabiltzen da: "Ori iñoren lepotik bizitzeko ona!". Batzuk onak dira, bestiak txarrak".

Elgoibarren eta Bizkaian biziki ongi bereizten dira bere/bera(re)n. "Amak bere umia maite dau. Bera(re)n aitzak ez." Latinez ere horrela: "Mater filium suum amat; illius soror non amat eum".

Beste puntu batzuk ere aipa litezke, Goierrin, Nafarroan eta Iparraldean galdu eta guk elgoibartarrok eta bizkaitar guztiek oso ondo erabiltzen ditugunak.

EGITURARI BEGI-

RA BIZKAIERA DA E U S K A R A R I K O N E N A. Markiñakoa? Markiñakoa eta Elgoibarkoa oso berdintsuak dira eta benetan herri biotan euskara bikaina egiten da.

Halere, 25 urtez Euskal Herriko zazpi probintzietan ibili ondoren, euskararik onena, euskal egiturari zintzoenik jarraitzen zaiona Mondragoi, Aretxabaleta, Ezkoria, Aramaion eta horien inguruetan, egiten dela esango nuke. Zergatik? Hori esateko beste artikulatu bat idatzi beharko nuke.

Bukatzeko hauxe. Elgoibarko gurasook: Zuen umeei ikasiko dute eskolan euskara batua. Zuek zeuen umeei Elgoibarko euskara zoragarria erakutsi. Aberastasun handia emango diezute.

Gotzon Garate
Deustu Unibertsitateko katedratikoa.

Martxoaren 30etik -Maiatzaren 30era

Udaberri-Uda



Elgoibarko Merkataria eta Zerbitzu Elkarte

Zozketa

✿ Sariak: TXANKAKUARO dendetan gastatu ahal izango diren 35.000 pta.ko 6 crosketa txartel.

✿ Zozketa data: Ekainak 4

✿ Sari banaketa, ekainaren 24ean izango da Kultur Etxean.



Elgoibartarrak direnentzat eta urteetan aurrera doazenentzat, ez dut uste argazki edo erretratu hau non aterata dagoen esan beharra dagoenik. Hura bai zela Plaza polita, lehengo azoka plaza! Orain gure begiak, argazkia ikusita konformatu behar dira.

Talde ederra bertan ikusten duguna. Hau ikusita argi dago orduko Elgoibar herri solidarioa zela, ... eta gaur?

Diru biltze bat behar zela eta elkartu ziren. Diru biltze hau garai hartan gaiso zegoen 21 urteko Imanol Vallejo gaztearentzat egin zen. (18 urterekin gaisotu eta 21ekin hil zen).

Argazki honetan agertzen diren pertsona asko gure artean ez badaude ere, hona hemen guztien izenak.

Beheko ilaratik hasita eta ezkerrik eskumara:

-Lehenengo ilaran: **Antonio Arrillaga, Mateo Uria, Sabin Beristain, Patxiko Etxeberria, Pepe Goyarzun, Conchita Mugerza, Juanito Etxaniz,**

Florentino Etxeberria, Roke Arregi eta Jose Gabilondo.

-Bigarren ilaran: **Imanol Mendikute, Pedro Beristain, Francisco Ansola, Manuel Unzueta, Ramon Ezenarro, Migel Sanchez, Jose Gurrutxaga, Arturo Zubiaurre, Luis Mari Zubiaurre, Antonio Azpiazu, Jesus Coro, Jose Mari Igartua, Rafael Mugerza, Julian Iriondo eta German Uriguen.**

-Hirugarren ilaran: **Iñaki Conde, Enrike Arano, Isaac Azpiazu, Imanol Sodupe, Faustino Navarri-co, Jose Jauregi, Silvino Gabilondo, Rafael Arcitioaurtena, Pepe Suarez, Jose Izagirre, Jose Zubiaurre eta Felix Garcia.**

-Azken ilaran: **Urban Conde, Felix Gabilondo, Agustin Zubiaurre bere seme Juan Manuelekin, Jose Juaristi, Roke Gabilondo, Jose Mari Mugerza eta Andres Juaristi.**

Maite Vallejo



MAPFRE
ASEGURUAK
Mari Luz Rojo

Mota guztietako aseguruak zure esku

San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04

OINETAKOAK
San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

Mausitxako gaztaren sekretuaren bila

San Antolin auzoko bidetik gora dagoen azken baserria da Mausitxa. Bertan oso estimatua den ardi gazta egiten da. Rosa Mari Salegi eta Jesus Ansola senar-emazteak hainbat gizalditik datorren gaztagile tradizioari eutsi diote eta orain, makinaria modernoagoarekin bada ere, Mausitxako betidaniko gazta egiten jarraitzen dute.



Behin esnea gogortuta, Rosak mamia eta ura banatzen ditu.

Gazta egiteak ez omen du bestelako sekretu edo errezeta majikorik. Jesussek dioenez, ardiei jateko ona eman eta garbitasun neurri egokiek nahikoa da ardi gazta gozoa egiteko. Jesusen aitonak erabiltzen zuen tresneria ezberdina zen oso, baina, gazta egiteko prozesua berbera da.

400 ardi inguru dute Mausitxan. Hauetatik, 200 batek ematen du gazta egiteko esnea. Azarotik ekaina arte, ardiek esnea ematen duten epean, jarduten du Rosak batez ere, gaztagintzan. Urtean 6.000 kilo gazta egiten dute eta aurten ere horretara heltzea nahiko lukete. Guztira, 34.000 litro

ardi esne behar izaten da sei mila gazta kilo egiteko eta zenbakiak handiak badira ere, ez pentsa gazta sobrate handirik izaten dutenik. Iaz, hain zuzen, faltan izan zuten gazta.

Den dena saldu egiten da, Elgoibarren batez ere, baina Deba eskualde osoan ere ezagutzen dute Mausitxako gazta. Kanean saltzen den gaztak bi edo hiru hilabete izaten ditu, jendearen eskaria dela eta, ez baitute denbora gehiagoz sikatzen edukitzeko astirik. Baina, inoiz, lehiaketaren batetarako aurkeztu izan duten gazta bospasei hilabetez eduki izan dute, gazta indartu dadin.


**Guztira,
34.000 litro
ardi esne
behar izaten
da 6.000 gazta
kilo egiteko eta
zenbakiak
handiak
badira ere, ez
pentsa gazta
sobrate
handirik izaten
dutenik.**

Esne koipetsuarekin egindako gazta esne mehearekin egindakoa baino gozoagoa izaten da. Izan ere, sasoi hasierako esnea oraingoa baino finagoa izaten da eta beraz, oraingoa aprobetxatu behar.

Gaztaren prozesua

Jesus eta Rosak bi egunez gazta egin eta bat deskantsu hartzen dute. Ardiek ematen duten esne litroen gorabehera, normalean 300 bat litro esne, egiten dute gazta. Bi egunetako esnea batu eta, 300 esne litroak tanke uhertezin batean edukitzen dituzte gazta egin artean. Tanke honetan, esnea 5 gradutako tenperaturan egoten da. Esnea

Kalean saltzen den gaztak bi edo hiru hilabete izaten ditu, jendearen eskaria dela eta, ez baitute denbora gehiagoz sikatzeko edukitzeko astirik.



➔ Gazta gatzurretan edukitzen da egun betez, behar duen gatz puntua har dezan.



➔ Prentsan hiru bat orduz egon behar da gazta.

hoztu egin behar da berezkoak dituen bakteriak hil daitezen.

Ondoren, gazta egiteko sasoian, esnea kuba edo ontzi batetan jartzen da. Lehendabizi, gatzagia eta gazta bota aurretik, 30 gradutara berotzen da esnea. Gazta egiteko, prozesu osoan esneak epel behar du egon.

Kopuruak zehatzak dira eta ondo neurtuta daude. 300 litro esneri 30 gramo gatzagi eta beste 30 gramo gatz botatzen diote. Behin gatzagia botata, ordu erdiz edukitzen dute gatzato bihurtu arte. Rosak lira antzeko tresna batekin txiki-txiki egiten du gatzato antzerako hori. Segidan, pala baten laguntzaz eta tenperatura 35 gradutara igoaz, batetik, gatzura eta, bestetik, gazta izango den mamia banatu egiten dira. Mamia prentsatu egiten da txapa uhertezin baten gainean pisua jarrita.

Dagoeneko, gazta kasik egina dago. Mamia trapu batean bilduta moldeetan sartzen da eta 3 bat orduz prentsan edukitzen dute gatzura bota dezan. Une honetan garratzasuna neurtzeko tresna baten bidez gazta guztiek garratzasun puntu berbera izan dezaten saiatzen dira. Aparatu honi esker, ekinaldi ezberdinetan egindako gazta igualtsu izatea lortzen dute.

Etxe barruan dagoen plastikozko ontzi batetan, gazta gatzurretan eduki behar izaten da. Egun betez eduki ondoren, gaztak behar duen gatz hartzen du. Azkenik ohol baten gainean azala sikatu arte beste egun betez eduki eta kamaran sartzen dira saldu artean.

Rosak eta Jesusek azaldu diguten bezala, prozesuak ez dauka inolako misteriorik. Duela bost gizaldi baino lehenagotik datorren gatzagile tradizioak badu, dudarik gabe, jarraitzaile onik.

Mintxetako zelairako belar artifiziala ala naturala?

Kirola herritar guztien eskubidea denez, Udaletxea betebeharrorretan lanean ari da eta Mintxetako instalazioek Elgoibarrek kirol azpiegituran dituen beharrak beteko dituelakoan gaude.



Bi kirolzale desberdin hurbilduko dira Mintxetara: alde batetik lehiaketa federatuetan, arautuetan, parte hartzen duten klubetako partaideak eta, bestalde, denborapasa gisa, osasuna zaintzeko eta lagunekin erlazionatzeko hurbilduko direnak.

Guzti hau kontutan harturik eta diru inbertsio handia denez, Udaletxeak Mintxetako futbol zelaiko belar motari buruzko erabaki garrantzitsua hartu du.

Belar artifizialaren aukeraketa egiterakoan, ondoren azalduko ditudan baldintzak erabakiorrak izan dira:

-Mantenua: Belar mota honek mantenu lanak gutxitzen ditu,

kostea asko jeitsiz.

-Erabilpena mugagabea izango da, nahi den ordu kopurua erabiltzeko aukera eskainiz.

Honela Klub Deportivoak futbol talde gehiago eratu ditzake eta talde hauek ez ezik, beste edozein elkartek ere erabil dezake futbol zelaia (eskolarteko jokuak, kuadrilen arteko txapelketak, e.a.).

-Kirola eboluzionatuz doa eta zelai mota honek futbolarien oinarri teknikoak garatzeko aukera gehiago ematen ditu.

Guzti honengatik eta Aldunditik diru-laguntza jaso ahal izateko, belar artifizialaren aldeko apustua egin dugu.

Ramon Mujika
Udal Kirol Teknikaria



Mintxeta ingurua, paisaia natural eta ederra, eta hara non egin nahi diguten futbol zelai bakarra, eta bera belar artifizialarekin.

Lehenengo eta behin, oso ondo erizten diot belar artifizialeko zelai bat egiteari: haur, alebin, infantil eta kadeteek teknika hartu eta ekipoguztiek entrenatu ahal izango lukete, baina *Haundirentzat* eta 2. Erregionalekoarentzat, ez zait serioa iruditzen.

Futbolak gauza asko biltzen ditu. Zelai lehorrean, bustian nahiz lokatzez betean jakin behar da jokatzeko, hauetan ere sartzen da teknika. Artifizialean, jokalaria lurrera eroriz gero, erre uneak egiten dira larru azalean. Denek ez esateagatik, kanpo bietan jokatu duten gehienek, ez dute nahi zelai artifizialik.

Futbol gaisoa, jokalaria bat erretzeko beldurrez lurrera bere burua bota ezinik, aurkakoari "pasilloa" egiten ikusten dugun egunean!

FIFA elkarte internazionalak, debekatua dauka nazioarteko futbol partidurik belar artifizialean jokatzea eta guri Klub Deportivoaren 75. Urteurrenean belar artifizialeko zelaia "oparitu" nahi digute.

Urrutira gabe, Zumarragan dago bat eta estreinatuko ondorengo urte t'erdira hainbeste hutsune ditu, ezin dela jokatu ia. Zelaia mugatzen duten marrak separatu egiten dira, areak zurituta daude, e.a. Hogeitau urte barru, Polikiroldegi hau ikusten dugunean, teniserako pistak, atletismorakoak eta abarrek osaturik, pena izugarria emango digu gauzak hobeto egin ez izateak, baina orduan berandu izango da.

Mintxetan bi zelaitarako lekua dago, belar artifizialekoa bata: herritarrentzat, entrenamenduetarako eta infantil, alebin eta kadeteen partiduetarako, eta bestea: belar naturalekoa, partidu ofizialearako eta azken honen mantenua, hauxe garrantzizkoa, merkea litzateke.

Jose M. Arakistain
C.D. E.ko entrenatzailea

Fotero
OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

GARATE

JANTZI - DENDA

Bartolome Deunaren Kalea, 13 . Tel: 74-11 29 ELGOIBAR

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

ETA ZURE USTEZ?

Mintxetako zelairako belar artifiziala ala naturala?



Joseba Igartua
20 urte, C.D.ko jokalaria
Naturala nahiago dot. Belar artifiziala klubaren ideien aurka doa. Baina artifiziala jarriko dabe naturala jarrita diputazioak ez duelako dirurik ematen.



Amaia Mugerza
23 urte, ikaslea
Ondo zainduta hobe da belar naturala. Belarra ondo dagoenean edo lokaztua dagoenean ondo jokatzeko jakin behar dute. Belar naturala hobe dela uste dot.



Manolo Santos
46 urte, komertziala
Onena belar naturala da, baina Lerunen pasa dena gerta ez dadin eta, maila guztietako futbolariak jeka dezaten nahi badugu, belar artifiziala izan beharko da.



Fermin Arrese
54 urte, mekanikoa
Artifizialarekin ekipo gehiagok jokatzen du. Baina hobia da naturala. Futboleant, 2. dibisioan ez dute artifiziala onartzen. Atletismoan ere artifizialean egindako markak ez dira homologatzen.



Jose Luis Arrese
26 urte, irakaslea
Askoz inportanteagoa da belar artifizialeko zelaia edukitzea. Ni umeekin nabil kirola erakusten eta horrelako zelai bati probetxu gehiago atera dakioko.



Txemi Etxeberria
45 urte, administratiboa
Politena belar naturala da. Baina futboleant jokatzekeo eskubidea duten mutikeo asko dago. Borondatearen aurkakoa bada ere, belar artifiziala egokiagoa iruditzen zait.

KIROLAK

CASA

ASTIGARRAGA

BIZIKLETAK

Errosario 16-18 ☎ 74 32 68

LORAK

BIZIKLETAK

Errosario 27 ☎ 74 43 86

BARRENen oharra

13. zenbakian, orde-nadore arazoak zirela eta, ezin izan genuen banaketa behar bezala egin. Jaso ez zenutenoi barkamena eskatu eta alea BARRENeko lokalean jaso dezakezuela jakinerazten zaizue

San Juanetarako Kartel lehiaketa Eibarren

Eibarko Udaleko Kultur Batzordeak aurtengo San Juan jaiak iragarriko duen kartela egiteko lehiaketaren oinarriak plazaratu ditu. Irabazleak 60.000 pezetako saria jasoko du. Kartelaren gaia librea izango da, "San Juanak Eibarren 1993" testua izan behar du eta dimensioak 70x50 zmtakoak behar dute izan. Kartelak euskarri gogorrean maiatzaren 21a baino lehenago aurkeztu behar dira Udaleko Kultur Zerbitzuan.

Helduentzako heziketa

Eskola graduatu titulua atera nahi dutenek (Helduentzako Heziketa), Kultur Etxeko Kultur zerbitzutik pasa daitezke izena ematera. Epea, apirilaren 30ean bukatuko da eta klaseak irailean hasiko dira.



Gas instalazioa: langabetuentzako irteera profesionala

Caritas elkarteak, Udalaren ren laguntzaz, gas naturala instalatzeko teknikei buruzko ikastaroa ematen ari da. Langabezian dauden herritarrei irteera profesional bat emateko helburuarekin antolatu da ikastaroa. Arrasateko Clegas enpresako langileak ari dira klaseak ematen. Gas instalazioarekin sortu den eskulan gabezia bete nahi dute ikastaroaren antolatzaileek. Ikastaroan, besteak beste, gas instalazio arautegia ikasten ari dira lan egiteko orduan seguritate osoarekin egin dezaten. Gasa instalatzeko teknikak praktikan jarritzeko aukera ere izango dute.

"Udalekuak 93" kanpaina martxan dago

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek udako kanpamenduak antolatu dituzte hiru lurraldeetako 7 eta 13 urte bitarteko haurrentzat. Aukerak asko eta anitzak dira: 20 leku ezberdin eta, hizkuntzari dagokionez, txanda elebidunak eta euskara hutsezko txandak. Izena apirilaren 29tik aurrera Donostiako Foru Jauregian (Gipuzkoa Plaza z/g), eman daiteke.



MITZ BIZKAR ARDOAK
 ARDO ETA PATTARRA
 PATATA SALMENTA
 Errosario 18
 Tel. 74 02 37


MEKANOSA
 Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

magu's
 ILEAPAINDEGIA
 EDERGINTZA
 San Roke 6 behea tel. 74 34 91

Mekanikako bi ikasle Burdeoseko "Aquitec 93" ferian

Elgoibarko Lanbide Heziketarako Institutua eta Pessac-eko Lycee Philadelphie de Gerde Institutuaren arteko ikasle interkanbioaren barruan, Barne Merkataritzako 2. moduloko bi ikasle "Aquitec 93" ferian izan dira. Feria hau enplegu orientazioari buruzkoa da eta bi ikasle elgoibartar hauek eskapareak atontzen egon dira. Mekanikako ikasleek hiru egun egin dute bertan "Aquitec 93" ferian eta oso gustora egon direla azaldu digute. Argazkian Mekanikako bi irakaslerekin batera agertzen dira "Aquitec 93" feriarako atondutako eskaparearen alboan.



Rock and Roll dantza lehiaketa eta ikastaroa

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek 14-20 urteko gazteentzat rock and roll dantza lehiaketa eta ikastaro bat antolatu ditu.

Lehiaketa, Elkartek urtero eratzen duen Ez dok amaitu!! egitasmoaren baitan antolatu da. Berau maiatzaren 28an izango da *guass* dantza lekuan.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek, aurrez lau saiotako ikastaro bat ere izango dute, Haritz Dantza Taldearen eskutik.

Ikastaroa maiatzaren 1, 8, 15 eta 22an, larunbata, goizeko 10etatik eguerdiko 1ak arte, Polikiroldegian izango da.

Izena emateko azkenengo eguna apirilaren 29a izango da eta Elkartek Ubitarten duen lokalean eman beharko da.

Itxaropena abesbatza Eskoriatzan

Apirilak 24 larunbatean, Elgoibarko Itxaropena Abesbatzak Eskoriatzako San Pedro Parrokian emanaldi bat izango du gaueko 8,30etan hasita.

Nerea Ugartek zuzentzen duen abesbatza honek, 15 obra eskeiniko ditu bi zatitan banatuko den emanaldian. Bertan, besteak beste, Aita Donostia, Jean Sibelius, Robert Jones eta Luis Elizalderen lanak interpretatuko dituzte.

Esmalte ikastaroa

Elgoibarko Egur arte tailerrak 60 ordutako iraupena izango duen suarekin landutako esmalte ikastaroa antolatu du. Ikastaroa maiatzaren 3a eta 31 bitartean izango da eta klaseak astelehentik ostiralera, arratsaldeko 6etatik 9etara izango dira. Suarekin landutako esmaltearen teknika ezagutu nahi duen orok Egur arte tailerrak Ubitarte Plazan duen lokaletik pasa eta izena eman dezake, arratsaldeko 6,30ak eta 9,30ak bitartean



**ELGOIBARKO
LANBIDE
HEZIKETARAKO
INSTITUTOA**

Arregitorre 2
Tel. 74 31 00-74 05 86
Fax. 74 11 68

Zure aukera

"Jendea, odolaren beharraz mentalizatu behar da"

Esan daiteke elgoibartarrok oso kontzientziatuta gaudela odol faltaren arazoarekin. Gaur egun, gure herriak 450 odol emaile eta beste 400 bat bazkide ditu. Baina hau ez da oraingo kontua. Ramon Maiztegik 28 urte daramatza Elgoibarko

odol emaileen elkartearen lehendakari bezala. Eta guzti hau gutxi balitz, beste datu bitxi bat: Gipuzkoan banatu ziren lehenengo urrezko insigriak hiru elgoibartarrek jaso zituzten (Demetrio Vallejo, Federico Iriondo eta Casto Iraegi).

- Noiz sortu zen Elgoibarko Odol Emaileen Elkartea?

- Gu 1963an hasi ginan gestio batzuk eitzen. Gero, handik urte bira, 1965an, Donostiakoak etorri ziren gugana han reglamentuak jarri zituztela eta. Guk gero jarri genduan Elgoibarren.

- Zenbat odol litro ateratzen dira Elgoibarren?

- 800 frasku urtian.

- Azken urteotan emaileek gora ala behera egin dute?

- Piskanaka gora doaz. Orain 100 bat donante berri behar ditugu zeren batzuek zahartzen hasi dira. 65 urtetik gora ezin leike eman, eta 18 urtetik gorakoek eman dezakete.

-Nora doa elgoibartarren odola?

- Donostiara. Han dago bankua. Gero eskatzen dabenak hartzen dau, guk ez daukagu preferentziarik. Behar dabanari eman.

- Ihesa dela eta, odol kontrolak kontu gehiagorekin egiten al dira?

- Bai, bai. Frasku guztiei eitzen jakue IHESaren frogia eta hepatitisarena ere bai.

- Gipuzkoako ospitaletan odol nahikoa al dago?

- Gipuzkoan gure odolaren konpontzen gera.



"Ez da zain egon behar etxeokoa odola falta daben arte"

Horrez gain Bilbora ere eramaten da eskatzen dabenian. Batzutan, Madrilera ere bai. Ze bankuan boltsa batzuek kadukatu ez kadukatu egoten dira. Hori gertatzen denean Madridera edo Bartzelonara deitu eta hara eramaten dira. Gerta litekeena ere, eta gertatu izan da, akzidente handi bat gertatzea eta Madridenten ez egotea guztientzat odol nahikoa; orduan Gipuzkoara eskatzen dabe.

- Ze pertsonak ezin dute odolik eman?

- Odola ezin dute eman tentsio bajua edo altua eta globulo falta dutenek. Pertsona bat medikatzen baldin badago, honek ere ezin du odolik eman. Eta oso inportantea da, baita ere, odola eman behar duenak gaztetan hepatitis pasatu duen ala ez jakitea.

- Ekintzarik antolatu al duzue aurten?

- Aurten ezepezio bat izan da. Jugoslaviarako kanpainia bat egin dugu. Bertan 115.000 kilo janari eta 10 miloi pezeta atera genituen. Kanpainia hau

Gipuzkoan egin den gogorrena izan da. Odol emaileak Gurutze Gorriarekin batera atera degu aurrera.

- Emaiguzu arrazoi bat odol emaile izateko.

- Odola falta dalako eta derrigor behar dalako. Jentia mentalizatu egin behar da eta ez da zain egon behar etxeokoa behar dabenerarte. Gainera, gero eta gehiago operatzen da eta operazio konplikatueta, generalian bihotzekuak, odol asko behar izaten da.

- Inoiz izan al duzue sustorik? Konortea galdu...

- Bai, bai. Baina ehundikan bat mariatzen da bakkarran. Gainera, odola eman eta gero jatekoa ematen diegu: pintxuak, tortila, bakillaua,... Zentzu honetan oso pozik agertzen da jentia eta baita gu ere.

- Ze diru-iturri dituzue?

- Elkartearen emaileak eta bazkideak daude. Hala ere, bat izan leike emaile eta horrez gain bazkideak izan. Bazkide hauek borondatezko kuota bat ordaintzen dute, telefonoa etab... ordaintzeko. Bestalde, Udaletxeak lokala ematen digu eta garbiketa ordaintzen du. Oso ondo portatu da gurekin.

Edu Sanz

Juanjo Gurrutxaga

Mapfre aseguruetxekoa



- Aseguru edo kotxeen mundua?
- Aseguruak, dudarik gabe.
- Aseguru asko egiten al dituzte gazteek? - Gero eta gehiago. "Bizitza Aseguruak" batez ere.
- Zure gorputzeko zein parte aseguratu zenuke?
- Barrabilak. Parterik estimatuena kontsideratzen dut.
- Nondik datorkizu "Tita" ezizena? - Brasilgo futbol selekzioan zegoen tipo batengandik.
- Umetan zenuen ilusio handiena? -Futbolean jokatzea.
- Ze musika moeta duzu atseginena? - Rock-a eta Blues-a.
- Ile luzea ala motza? - Ahal izango banu, oso luzea eramango nuke.
- "Lisker" taldeko abeslari ere izan zara. 0-tik 10-erainoko puntuazioa? - Abeslari bezala 6ko bat, eszenara irtetean ,ordea, 10eko bat.
- Gaua ala eguna? - Gaua.
- Esaera zahar bat? - Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna.
- Atseginen duzun kirola? - Atletismoa, futbola eta eskubaloia.
- Noiz arte futbito lehiaketan? - Beharbada aurten izango da azkenengo urtea. Hurrengo urtean Felipekin batera, "Kosakoen" zuzendaritza eramatea nahi nuke.
- Elgoibar ala Athletic? - Biak.
- Amets bat? - Leirekin ondo konpontzea.
- Umeak gustatzen al zaizkizu? - Bai asko.
- Duzun bertute onena? - Jendarekin ondo konpontzea.
- Zertan ematen duzu zure denbora libre? - Lagunekin irtezen.
- Gorbata ala pajarita? - Gorbata.
- Idolo bat? - Bi: George Best eta Raimond Pounder.
- Egia al da ezkontzen zarela? - Bai. Eta oso gustora gainera.

Isabel Ansola

BERTSOTAN

FUTBOL ZELAI BERRIA

Doinua: Egun da Santi Mamina

Lerun doa historiara zelai berria ere bada. Badakizue zelaiarena, hitz egiteko era da...

Lerun zaharra ikusirik, ez du belar soberarik. Ezta Mintxeta berriak ere, gutxienez naturalik.

Lerunen logia frango, Mintxetan ez da izango. Udaberrian belar mozketak ez du lanikan emango.

Zelai kontuei eta, zor zaie bere arreta. Lerun bihotzez maite genuen. Bizi luzea Mintxeta.

Jon Barandiaran

 **XABIER**
ILEAPAINDEGIA

Eskatu eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

ORTUETA 

Lapatak eta poltsak

San Frantzisko 2 ☎ 74 04 95

UDA BERRI

ELGOIBAR


Eskolarteko haurren ibilaldi neurtua

Aurtengo kurtso hasieran Mendi Federazioak antulatutako "Eskolarteko VI. Mendi Lehiaketa"ren barruan, Gipuzkoako eskoletako haurrentzako ibilaldi neurtua izango da igandean.

Morkaiko Mendizale Elkartea herriko eskola ezberdinekin harremanetan jarriko da Arantzazun egingo den ibilaldira ahalik eta haur gehien eramateko.

Morkaikok autobusa antolatu du eta irteera igandean goizeko 9,30etan izango da Sigmako zubian.

Ibilaldiaren iraupena, gosaria barne, 4 ordukoa izango da gutxi gorabehera. Ibilaldia gutxienez 3 eta gehienez 5 mendizalez osatutako patruila sistema bitartez egingo da. Patruila bakoitzari parte-hartze txartela emango zaio ibilaldian zehar egongo diren kontrol ofizial guztietan erakutsi beharko dutelarik. Kontrol puntu guztiak pasatzen dituzten patruilak sailkatuko dira eta ekainaren 18an ospatuko den "finalista egunerako" pasea lortuko dute. Finalista izateko, antolakuntzak 7 irtenaldi egitea eskatzen du.



Tomas Conde:

Xakeak, gauzak egin aurretik pentsatzen erakusten du

-Nondik datorkizu xakerako zaletasuna? - Txikitatik beste pertsona batzuk jokatzeko ikustetik dela uste dut. Zazpi urte nituenetik jokatzeko. Etxean eta etxetik kanpo ere bai. Maalako mahaietan xakean jokatzeko genuen, nik eta beste haur batzuek.

- Zein mailatan jokatzeko duzu?


- Hiru kategoria daude, lehenengo, bigarrena eta hirugarrena eta gu lehendabizikoan gaude. Elgoibar mailako txapelketan parte hartzen dugu eta probintzi mailan jokatzeko diren ere bai.

- Zer da garrantzitsua xakean ondo jokatzeko? - Beharbada, ezagutza tekniko batzuek gain, pertsona moduan ahalik eta garatuen egotea. Erasoan zein defentsan partidaren egitura egokia egitea funtsezkoa da.

- Intuizioak badu zerikusirik?

- Ez. Jokaldi jakin bat intuizioan oinarrituta egon daiteke, baina xakea ikasi egiten den zerbait da. Xakearen hiru parteak, irekiera, jokua eta amaiera aurrez aztertzen dira. Orduak sartzea da kontua.

- Jokatu al zenue ordenagailu baten aurka? - Ez, ez zait gustatzen. Oso inper-



sonala da. Nahiago dut parean pertsona bat edukitzea.

- Jake mate perfektua? - Ez dago partida perfekturik. Jokaldi politik eta hain politik ez direnak daude. Ez da posible xakean perfekturik, xakean miloika konbinazio daudelako.

- Zer erakutsi dizu xakeak?

- Xakea oso didaktikoa da. Pertsona bezala garatzen zaitu eta gauzak aurrakusten erakusten du. Gure bizitzako gauzak aztertu eta haien zergatia bilatzen ikasten da. Xakeak, gauzak egin aurretik zer egingo duzun pentsatzen erakusten du.

● Adina: 35

● Xaketik gehien erakartzen zaituena? Kluba osatzen dugun taldea.

● Zuriak ala beltzak? Zuriak.

● Idolorik? Ez.

● Zaldia ala alfila? Alfila.

ASGI
taberna
Urasandi 1,2.zbk.
Tel: 74 28 38

OLATZ, S.L.
SUKALDE ETA KOMUNERAKO
ALTZARIAK
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 74 38 44

IDARRAGA
KAFEAK
Eguneroko errealdia
San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

300 bat partaide igandeko Duathloian

Goizeko 10etan hasiko da Plaza Handian III. Gipuzkoako Duathloi Txapelketa. Guztira 300 bat korrikalarik hartuko du parte eta proba hau, beste zazpi lasterketarekin batera, Euskadiko Duathloi Txapelketarako baliagarria izango da. Elgoibartarrak, gutxi bada ere, izango dira lasterketa garrantzitsu honetan.



Argazkian, Duathloiaaren azken edizioko irabazlea Plaza handiko helmugan sartzen.

Parte hartzaileen artean Euskal Herriko hoberenak egongo dira. Iazko Duathloi txapeladuna, Sebastian Lertxundi ondarrutarra, Borja Oses galdakaoarra iazko Triathloi txapeladuna, Jon Astigarra-ga, Txiki Plazas eta beste hainbat korrikalari ezagun ibiliko dira txapelaren bila.

40 kilometro saltaka eta bizikletaz

Parte hartzaileek Duathloiaaren ibilbidea bizikletaz eta saltaka egin behar izaten dute. Lehendabiziko 7 kilometroak korrika egingo dituzte; ondoren, 30 kilometro

bizikleta gainean eta, azkenik, beste hiru kilometro t'erdi, gutxi gora behera berrir saltaka. Lasterketa Plaza handian hasiko da. Herri osoa zeharkatu beharko dute, Sigmako etxeetatik San Antolineraino. Bizikleta gainean bete beharko duten ibilbidea luzeagoa da: Mendaro, Deba, Mutriku, Kalbarioa, Sasiola eta Elgoibar. Plaza handira heltzean herriari beste bira bat emango diote, lehenengoa baino laburragoa, lasterketa Plaza handian bukatuko delarik. Korrikalariak indarra berreskuratzeko hiru toki izango dituzte:

bata, Udaletxe parean egongo da, beste bat Kalbarioan eta azkena, helmugan.

Aurten berrikuntza bat egin dute antolatzaileek. Iazko errekorra gainditzearen 25.000 pezetako dirusaria emango dute. Lasterketa irabazten duen lehen gizonetakoak 50.000 pezetako saria jasoko du eta lehen emakumeak beste horrenbeste. Lasterketaren garrantzia dela eta, dirusariak emango diren leheneko aldia izango da aurten.

Urgazi Triathloi taldeak, Udaleko Kirol Zerbitzuaren ezinbesteko

laguntza izan du lasterketa antolatzeko eta, "Radio Estudio" irratia patzozinatzaile lanak bete ditu. Antolakuntzan, 50 pertsona arituko dira, epaile lanetan, bidegurutzeak zaintzen etab.

Gero eta arrakasta handiagoa duen lasterketa honetarako 800.000 pezetako aurrekontua izan du Urgazik. Diru sarrera garrantzitsuena, berriz, izen ematek aterako dena izango da. Elgoibartarrek ez dute inskripzio gasturik ordaindu beharko eta, antolatzaileak elgoibartar guztiek federatu txartela atera dezaten arduratu dira.



ANCHUSTEGUI Sa

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

ZALDUA
ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

MALAPE

Sallobente elkarte: filosofia positiboaren jarraitzaile


Beraien esanetan, filosofia positiboa duen jendea dira Sallobente soziedade osatzen dutenak. Orohar, ondo bizi izaten dakien jendea da, agobiorik gabe, eta nekazal inguruak ematen duen toke berezi horrekin. Bertako haizeak ematen duen zerbait omen da. Jan eta edan eta herri kirolekiko zaletasuna da Sallobente soziedadekoen berezitasun nabarmenena.

Sallobente ballarari bizitza emateko sortu zen, aspaldi batean haurren eskola izandakoan dagoen soziedade. Auzoko batzuk asmo horrekin elkartu eta 1972. urtean soziedade sortu zuten. Auzokoa izatea edo Sallobenten bizi izatea beharrezko baldintza zen eta oraindik ere bada elkarte-ko bazkide izateko. Inoiz kaletarren batek eskatu du bertan sartzea baina, hasieratik jarritako baldintzari gogor eusten diote Sallobentekoei. Emakumeei dagokionean, ez dute bazkide gisa onartzeko inolako arazorik; izan ere badaude bazkide diren bi emakume.

Auzoko eskola zaharra erdi erortzen zegoen eta poliki-poliki berritzeari

ekin zioten. Denon artean konpondu zuten lokala, arotzak, elektrizistak, igeltseroak... denetarik bait dago bazkideen artean.

Laster hasi ziren jai kontuak antolatzen. Lehenagotik ere ospatzen zen abuztuaren San Lorenzoren omenezko jai baina soziedadekoek hartu zutenean haren kargua, jaiak handitzen eta kaletarren parte hartzea gero eta nabariagoa bihurtzen joan zen. Abuztuaren 10a, San Lorenzo eguna, beti errespetatu dute. Aurreko edo ondorengo astebukaera aukeratzen dute jaiak antolatzeko. Edade guztiei begira atontzen dute egitaraua eta herri kirolak, noski, jaien ardatza dira. Jaien antolakuntzarako Udalaren laguntza izaten



SOARTE

↳ Sagardo dastaketa antolatzen dute Sallobentekoei.

dute baina hala ere txekor bat zozketatu behar izaten dute feriaz feria jaien egitarauari buelta emateko.

Duela zortzi edo bederatzirte hasi eta urtero, *Artazo* pilotari ezagunaren omenez, *Pilota Txapelketa* antolatzen dute auzoko eta herritarren artean. Urtarri-lean hasi eta San Jose

eguna arte irauten duen "ligilla" antzekoa da. Honez gain, San Bartolome jaietan ospatzen den sagardo dastaketa eta lehiaketaren antolatzaile dira. Feria egunean egiten da sagardo lehiaketa eta, gutxi gorabehera, hamabihamabost sagardoazale ekartzen dituzte.

ARKUME ERREA BURDUNTZIAN

OSAGAIAK:

- 12 kiloko arkume bat
- Pare bat baso ozpin
- Baso erdi olio
- Berakatz buru bat
- Gatza ugari

NOLA EGIN:

Berakatz txiki-txiki egin eta olio, ozpina eta

gatzarekin nahasketa bat egin. Arkumea garbitu eta oso-osorik burduntzian lotu. Egurrikatzaz sua egin. Arkumea burduntzian jarri, ikatza sugarretan dagoenean. Arkumea erretzen joan behar da, baina lehenengo sutatik urruti xamar

jarri. Poliki-poliki, egiten doan heinean, sutara urreratu. Arkumea pare bat orduz eduki behar da erretzen. Arkumea ia prest dagoenean nahastearekin igurtzi. Beharrezkoa da Errioxako ardoarekin dastatzea. Postre bezala, gatzatza.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1972

Presidentea:

Sebastian Gorrotxategi

Bazkide kopurua: 41

Urteko kuota: 2.000

Berezitasuna:

Pilota txapelketa

Helbidea:

Sallobente auzoa z/g

Leizarpek Izarraitzi buruzko liburua kaleratu du

Igandea, Leizarpe espeleleologia elkarteak Kultur Etxean antolatutako erakusketa ikusteko azken eguna izango da. Aste osoan zehar, jende mordoak hurbildu da Leizarpekoek batutako fosil, mineral, animalien hezur eta beste zenbait objektu begiztatzerara. Erakusketarekin batera, Leizarpekoek Izarraitz eta inguruei buruz egindako liburua salgai jarri dute.



→ Kobazulo batetara egindako jeitsialdia.

Bitriña ezberdinetan aintzinateko fosilak daude ikusgai. Zumaian aurkitutako igel baten fosila da bereziki deigarria. Hauetariko batzuk beraiek aurkitutakoak dira eta beste batzuk, ordea, jendeak emandakoak. Bilduma honetako fosil gazteenak, 80 milioi urte ditu eta zaharrenak, 470 milioi urte.

Mineralen atalean, Euskal Herriko, Espainiako eta atzerriko mineral motak aurki daitezke. Gauzarik deigarriena, ordea, Mendaroko leize batean aurkituta-

ko zezen baten buruhezurra da. Kobazuloetan animalia asko aurkitzen dituzte, normalean, baserritarrek gaisorik dagoelako utzitakoak edota galdu eta bertan hil direnak.

Bestetik, 1988. urtean Morterikan aurkitu zuten eta Gipuzkoan bakarra den Brontze garaiko aizkora bat dago ikusgai. Oso egoera onean kontserbatzen da pieza hau eta balio handikoa da.

Espeleleologian aritzeko materialea, argazki

kamarak, topografiarako materialeak, plano topografikoak, mapa hidrogeologikoak eta Mendaroko Ermitia kobazulora egindako jeitsialdi baten bideo batek osatzen dute erakusketa.

Leizarpekoak, kobazuloetara jaurtitzen den zikin-keria erretiratzeko ibili izan dira. Denetarik aurkitu izan dute bertan: telebistak, hozkailuak... Kobazuloen egoera eskasa salatu eta baserritarrek kontzientzia ekologiko sendoa hartzea funtsezko dela uste dute.

Izarraitz eta bere inguruak

Duela hilabete argitaratu zuten Leizarpe espeleleologi elkarteok 10 urtez egindako lanaren fruitu den "Estudio hidrogeológico del Karst de Izarraitz" izeneko liburua. "Xagu-zarrak" desagertutako taldearen lana eta Leizarpe osatzen duten 17 kideren taldeko lanaren bilduma da. Bertan, Izarraitz inguruko lurrazpiko uren norabidea aztertzen dute. Lurrazpiko uren mapa baten bidez, zazpi bat erreken norabidea Mendaroko alderantz bideratzen dela ohartu dira. Azterketa hau egiteko erabili duten teknika, uraren kolorazioarena izan da. Urarekin nahasten den hauts batek berde bihurtzen ditu errekek eta, haren arrastoa jarraituz, erreken ibilibidea zein den jakin dezakete. Leizarpekoek egindako lan sakon honek badu erabilera praktikorik: dauzkagun ur baliabideei ahalik eta probetxu gehien ateratzea, alegia.

Aurten bigarren liburu bat argitaratzeko asmoa dute, Elgoibarko trikuharri eta aintzinako tresneriari buruzkoa, hain zuzen.

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

INTXAURRAGA
zerbitzu aukeratua
SECUC
San Roke 11, Tel. 74 18 37

PUB
elgoibar

24 Larunbata

16,15 FUTBOLA

Elgoibar-Numancia

Tokia: Lerungo futbol zelaia

16,30 TXIRRINDULARI

ESKOLAKOEN

LASTERKETA

Lekua: Ibaitearte poligono
industriala

Antolatzailea: Elgoibarko Lagun
Taldea

Z I N E A

"Dracula"

Bram Stoker-en nobelari leialki helden dio Coppolaren pelikula. Dracula Kontea giza odola xurgatzera kondenatua dago bizirauteko. Banpiroa Londres a doa Minaren bila, bere lehen emaztearen errenkarnazioa denaz kontentzuta. Bertan, Van Helsing Doktorea eta Minaren senarrari (bere gazteluan giltzaperatuta eduki ondoren) aurre egin behar ko die. Amaiera aski ezaguna da guztiontzat.

Z I N E A

19,30 ZINEA

"Dracula" 1992.

Zuzendaria: Francis Ford Coppola

Aktoreak: Gary Oldman, Winona

Ryder, Anthony Hopkins,

Keanu Reeves.

12,00 ESKUBALOIA

C.D. Elgoibar E.T. - Ordiziako

Barandiaran Taldea

16,30 ZINEA

"La loca historia de las Galaxias"

19,30 ZINEA

"Dracula"

25 Igandea

9,30 UMEEN IBILALDI

NEURTUA OÑATIN

Autobusaren irteera: Sigmako

zubia

10,00 GIPUZKOAKO DUATH-

LOI TXAPELKETA

Antolatzailea: *Urgazi* Duathloi taldea eta UdalKirol Zerbitzua.

26 Astelehena

19,30 ZINEA

"Dracula"



EIBAR

OSASUNDEGIA

- 1- Alergologia
- 2- Kardiologia
- 3- Zirugia
- 4- Zirugia maxilo faziala
- 5- Dermatologia
- 6- Ginekologia
- 7- Laborategia
- 8- Barne medizina

Urkizu Pasealekua, 11.

(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).

Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

- 9- Ortodontzia
- 10- Otorrinolaringologia
- 11- Pediatria
- 12- Sikiatria
- 13- Radiologia
- 14- Traumatologia
- 15- Urologia



24 orduz zuekin

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar

☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

Etxebizitzak

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.
Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 ra.

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

Bi bizikleta motoreta saltzen ditut. BMX modelokoak.
Tel: 74 05 35

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Salerosketak

Txakurrak eramateko erremolke bat erosiko nuke.
74 28 64 (Bulego orduetan)

MUY INTERESANTE-ko zenbakiak saltzen ditut. Zenbakiak dira: 2,4,8,9,...15,17,18,...80. NATURA-ko zenbakiak saltzen ditut. Zenbakiak dira: 4,5,...57,58,60. Biak oso ondo zainduta daude. Ahal bada, nahiago nuke loteten saltzea. Prezioa negoziatuko dugu.
Interesatuak deitu hona 74 26 09 (Roberto).

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 ppta.
Alberto: 74 14 94

Tituludun irakasleak **O.H.O. ko klase partikularrak** ematen ditu.
Alazne Tel.: 74 28 53

Bigarren eskuko aldizkariak, liburukak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

"Asolo Super-soft" (42zkb.) botak eta "Softex" txamarra saltzen ditut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

18 belozidatedun Mountain Bike bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapies"ak eta beste osagarri batzuk.
Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 15 35

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.

Kontaktuak

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.
Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

Musika egiten duen lagun talde bat gara. Lokalen bat alokatu nahi genuke entsaiuak egiteko. Alokatzeko moduan **lokalik baldin baduzu, deitu 74 33 66 telefonora eta Josurengatik galdetu.**

PISUA KONTROLATZEA ez da erreza, MANTENTZEA are gutxiago.

ERANTZUNA "Herbalife" NUTRIZIO PROGRAMA da .

Deitu 74 22 23

Belen Albizu. Santa Ana 10-4C



PETUNIA


Modak

Errosario 12, tel: 74 16 48



Done Frantzisko, 27
☎ - Fax 74 32 06
20870-ELGOIBAR (Gipuzkoa)

SEAT IBIZA BERRIA



TEKNOLOGIA ALEMANA

**ZATOZ
BERRIKUNTZA
GUZTIAK
DESKUBRITZERA**

SEAT
Bai!

SEAT

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 . Tel. 11 36 42 Eibar